

IKASTETXEAK AUKERATZEKO PROZEDURA ETA IRIZPIDEAK, HEZKUNTZAKO ORIENTATZAILE ARITZEKO. 2020-2021 IKASTURTEA

Beren jarduketa esparruan hezkuntzako orientatzaile lanpostu bat baino gehiago duten ikastetxeetan egin beharko da 2020-2021 ikasturtean hezkuntzako orientatzaile aritzeko ikastetxearen edo ikastetxeen urteko aukeraketa.

NORK HARTUKO DUEN PARTE AUKERATZEKO EKITALDIAN

Hezkuntzako orientazioaren espezialitatea duten irakasleak izanik, parte hartu beharko dute ekitaldian 2020-2021 ikasturtean zerbitzu egiazkoak eman behar dituztenek beren jarduketa esparruan; bai eta hurrengo egoera hauetakoren batean daudenek ere:

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko zeinahi departamentu edo organismo autonomotan burutzaren bat betetzen ari direnek.
- Kargu politiko batean jarduteko zerbitzu berezietan ari direnek (kontseilariak, zuzendari nagusiak, erabateko arduraldia duten alkateak, etab.).
- Seme-alaba edo ahaideren bat zaintzeko eszedentzia berezian daudenek edo eszedentzia eskatua dutenek.
- Aukeratzeko ekitaldiaren egunean borondatezko eszedentzian daudenek lanpostuaren erreserba izanik.
- Zerbitzu eginkizunetarako baimena emana dutenek seme-alabak zaintzeko eta aparteko egoeretarako, azken kasu horretan salbuespena izanik zerbitzu eginkizunetarako baimena dutenak ikastetxe jakin baterako.

Honako hauek ezin izanen dute aukeraketa ekitaldian parte hartu:

- 2020-2021 ikasturterako zerbitzu eginkizunetarako baimena emana dutenek ikastetxe baterako.
- Borondatezko eszedentzia emana dutenek lehen urtean lanpostuaren erreserba izanik, baldin eta eszedentzia-aldia 2020ko irailaren 1ean hasten bada.
- 2020-2021 ikasturterako liberazio sindikal baterako proposatuak izan direnek.
- Kargu politiko batean jarduteko zerbitzu berezietan ari direnek, esaterako parlamentariak.

AUKERAKETAREN HURRENKERA EZARTZEKO IRIZPIDEAK

Hezkuntza orientazioko irakasleek Bigarren Hezkuntzako institutu bakoitzari atxikitako ikastetxeak aukeratuko dituzte kontuan harturik lekualdatze lehiaketaren bidez lortu den lanpostuaren hizkuntza eta honako hurrenkera honen arabera (225/1998 Foru Dekretua, irakasleen lanaldia eta ordutegia arautzen dituenen):

1. Bigarren Hezkuntzako katedradunen kidegoko irakasleak, hezkuntzako orientazioaren espezialitatekoak.
2. Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko irakasleak, hezkuntza orientazioko espezialitatekoak eta ikastetxean behin betiko destinoa dutenak.

Bi atal horietako bakoitzean, ondokoek zehaztuko dute aukeratzeko lehentasuna:

1. 1. atala: Antzinasuna katedradunen kidegoan; borondatezko eszedentziako denbora ez da zenbatuko.
2. 2. atala: Antzinasuna kasuan kasuko kidegoko karrerako funtzionario gisa; borondatezko eszedentziako denbora ez da zenbatuko. Funtzionarizatutako langileen kasuan, lan-kontratudun finko izendatu zituzteneko egunak baldintzatuko du aipatutako antzinasuna; lehenbiziko zerbitzu urtea kenduko zaie, praktikaldizat jotzen baita.
3. 1. eta 2. ataletan, antzinasunean berdindurik egonez gero, lehentasun ordena zehaztuko da ondoko irizpideak hurrenez hurren aplikatuz:
 - Ikastetxean antzinasunik handiena izatea. Horretarako aintzat hartuko da zein institututan lortu den behin betiko destinoa lekualdatze lehiaketan.
 - Kasuan kasuko kidegoan zein urtetan sartu ziren, nor lehenago.
 - Kasuan kasuko kidegoan sartzeko hautapen prozeduran erdietsiriko puntuaziorik handiena. Horren ondorioetarako, kontuan hartuko da hezkuntzako orientatzaile lanpostua eskuratu zen oposizioan lortutako hurrenkera.

AUKERATZEKO PROZEDURA, EGUTEGIA ETA EKITALDIA

Maiatzaren 11n

- Behin-behineko zerrenda argitaratzea, Bigarren Hezkuntzako institutuetan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutuetan behin betiko destinoa duten hezkuntzako orientazioko espezialitateko irakasleena.

Maiatzaren 12an, 13an eta 14an

- Behin-behineko hurrenkerari erreklamazioak aurkezteko epea. Eskaerak, nahitaez, Erregistro Orokor Elektronikoen bidez aurkeztuko dira. Tramitazioa gaituko da webguneko fitxan.

Maiatzaren 28an

- Behin betiko zerrenda argitaratzea, Bigarren Hezkuntzako institutuetan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutuetan behin betiko destinoa duten hezkuntza orientazioko espezialitateko irakasleena.

Ekaineko lehen astean

- Jendurrean jarriko dira postua aukeratzeko egun-orduak.

Norberak hezkuntza orientazioko behin betiko lanpostua duen Bigarren Hezkuntzako institutuan egingen da.

- Eskainitako lanpostuak. Lanpostu hauek alda daitezke. Aldatzen badira, horren berri emanen da aukeratzeko ekitaldia egin baino lehenago.

Prozedura

- Aukeratzeko ekitaldia zuzenduko du institutuko zuzendariak edo haren ordezkari arituko den zuzendaritza taldeko kideren batek.
- Ofiziozko adjudikazioa: parte-hartzaileen batek lanposturik aukeratu ez balu, gainerako guztiek lanpostua aukeratu ondoren, ofizioz adjudikatuko litzaioke hurrengo lanpostu hutsa, aktan duten zenbakien hurrenkeran.
- Orientatzaile bakoitzak hautatuko du lanaldi osoko edo partzialeko lanpostu bat, baldin eta taula honetako lanaldietako bati badagokio:

	Lan ordutegia. Lanaldia								
Laburtzea	2/3	1/2	%45	2/5	1/3	1/4	1/6	1/8	> 58 urte
Lanpostuaren lanaldia (orduak)	6	9	10	11	12	13	15	16	13

- Lanaldi partzialeko lanpostua hautatuz gero, konpromisoa hartuko du lanaldia dagokion heinean laburtzeko eskatzeko.
- Lanpostuak aukeratzeko ekitaldira joaterik ez duenak beste norbaiti eman beharko dio baimena bere ordeztu dadin. Horretarako, webgunean argitaratuko den baimen-eredua bete beharko du.
- Ikastetxe bakoitzari posta elektronikoz igorriko zaio kasuan kasuko aukeraketa-akta, zeinetan jasoko baita deialdian sartu den pertsona bakoitzak zer lanpostu aukeratu duen. Aukeratzeko ekitaldia baino egun bat lehenago igorriko da.
- Ikastetxeek aukeraketa-akta Hezkuntza Departamentura igortzea:
Akta behar bezala beteta egonen da, eta parte-hartzaileek eta ekitaldiaren buru izan denak sinatua. Aldi baterako Langileak Kudeatzeko Zerbitzura eskaneatua igorriko da, sgpteducacion@navarra.es helbide elektronikora, lanpostuak aukeratzeko ekitaldiaren eguneko 13:00ak baino lehenago.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 11n

Aldi baterako Langileak Kudeatzeko Zerbitzuko zuzendaria

Isidra Roldán Arróniz